

Urteroko Pirinioetako Batzarra burutu da Erroibarren, Pirinioetako Plana balioan jarri eta bultzada emateko

Bileran parte hartu dute Pirinioetako Mahaiko ordezkariak, Ekialdeko Pirinioei buruzko Txostenaren jarraipena eta kontrola egiteko Parlamentuko batzordeak, Oscar Chivite Lurralde Kohesiorako kontseilariak eta Jesus María Rodríguez Toki Administrazioako eta Despopulazioko zuzendari nagusiak.

Beste urte batez, Pirinioetako Batzarra egin da, eta Pirinioetako Plana osatzen duten partaideek horren alde egindako apustua berresteko balio izan du. Pirinioetako Mahaiko ordezkarien hitzetan, "azken urte honen balantzea egiteko, aurtun landu beharreko erronkak eta proiektuak partekatzeko eta gobernantza hobetzen jarraitzeko balio izan du".

Ildo horretan, Pirinioetako Plana sostengatzen duten eragile desberdinen arteko gobernantzan izan diren aurrera pausoak onartu dira, eta horrek egonkortasun eta lanerako gaitasun handiagoa eman dio planari. Horrela, etorkizunari begira aurrera egiten jarraitzeko oinarriak ezarri dira, eta Pirinioetako Plana osatzen duten alde guztiak gonbidatu dira balizko egitura juridiko bat sortzeko helburuarekin egingen den azterlanean parte hartzera. Azterlanaren helburua izango da etorkizunean Planari egonkortasun handiagoa emango dion forma organiko posible bat, bai eta balizko aldaketa instituzionalen aurrean sendotasuna ere. Era berean, Legebiltzarreko batzordeari jarraipen handiagoa egiteko eskatu zaio, eta eskua luzatu dio lurraldeari zuzenean eragiten dioten gaiak elkarrekin lantzeko, hala nola Despopulazioari eta Landa Garapenari buruzko Legea, etxebizitzarik eza eta zaintzak. Horretarako, bilera espezifikoak proposatu dira Legebiltzarreko batzordearekin, gai horiek batera lantzeko.

2025ean egin zen bezala, mahaiak positibotzat jo du alde guztien artean ekintzen ibilbide-orri bat adostu izana 2026rako, eta hori betetzea espero du. Mahaiko kideek adierazi dute lantaldeen bidez jarriko dela lanean bide-orrian jasotako ekintzak burutzen hasteko. Lurralde Kohesiorako Departamentuari ere bizkortasun eta erraztasun gehiago eskatu zaizkio, aurreikusitako ekintzak garatu eta gauzatu ahal izateko.

Aurrera begira, azken urte honetan egin den bezala, lan egiteko deia luzatu da, Pirinioetako garapen sozial eta ekonomikoa bultzatuko duten proiektu estrategikoak abian jartzeko. Zainketen, etxebizitzaren edo lehen sektorearen gaia azpimarratu dira, hainbat proiektu lantzeko ardatz estrategiko gisa, tokiko ikuspegi batetik eta hainbat eragilerekin lankidetzan. Beste batzuetan bezala, mahaiak lurraldearen garapenerako funtsezkotzat jotzen dituen proiektuetarako finantzaketa eskatu da.

NOTA DE PRENSA/PRENTSA OHARRA



Oro har, Pirinioetako Mahaia pozik dago batzar hau egin delako. Izan ere, beste behin, inplikaturako alde guztiek (Mahaia, Gobernu eta Legebiltzarra) planaren berrikuspenean parte hartu dute, planaren prozesuari buruzko hausnarketa egin dute, une bakoitzean haren indarguneak eta ahuleziak identifikatuz, eta etorkizunera begira, erakunde guztiek lurraldearekin duten konpromisoa berretsi dute.

Se celebra en Erroibar la anual Asamblea del Pirineo en la que se ha vuelto a poner en valor el Plan del Pirineo

En el encuentro han participado representantes de la Mesa del Pirineo, la comisión parlamentaria para el seguimiento y control del Informe Ponencia sobre Pirineos Orientales, el Consejero de Cohesión Territorial Oscar Chivite y el Director General de Administración Local y Despoblación Jesus María Rodríguez.

Un año más, se ha celebrado la asamblea del Pirineo que ha servido para corroborar la apuesta de las diferentes partes que forman el Plan del Pirineo hacia el mismo y en palabras de representantes de la Mesa del Pirineo “ha servido para hacer balance de este último año, plantear los retos y proyectos que hay que abordar este ejercicio y seguir trabajando en la mejora de la gobernanza”.

En este sentido, se han reconocido los avances que se han dado en la gobernanza de las diferentes partes que sustentan el Plan del Pirineo, lo que ha dotado de mayor estabilidad y capacidad de trabajo a los diferentes agentes. De esta manera, se han establecido las bases sobre las que seguir avanzando al futuro y se ha invitado a todas las partes que conforman el Plan del Pirineo a participar en el estudio que tendrá como objeto una posible forma orgánica que dote de una mayor estabilidad al Plan de cara al futuro, así como de fortaleza ante los posibles cambios institucionales. Desde la mesa también se ha solicitado un mayor seguimiento por parte de la comisión parlamentaria hacia el plan y se ha tendido la mano para trabajar conjuntamente temas que afectan de manera directa al territorio, como son la futura Ley de Despoblación y Desarrollo Rural, la falta de vivienda y los cuidados. Para ello, se han propuesto reuniones específicas con la comisión parlamentaria que tengan como objeto trabajar de manera conjunta dichas cuestiones.

Al igual que ya se hizo en el año 2025, la mesa ha valorado positivamente haber acordado entre las diferentes partes una hoja de ruta de acciones para el 2026, que espera que se cumpla, y por su parte se va a poner a trabajar en ella a través de los diferentes grupos de trabajo. También se ha solicitado mayor celeridad y facilidades por parte del Departamento de Cohesión Territorial para poder desarrollar y llevar a cabo las acciones previstas.

De cara al futuro, se ha animado a seguir trabajando tal y como se viene haciendo este último año para poner en marcha proyectos estratégicos que impulsen el desarrollo social y económico del Pirineo. Se ha hecho hincapié en el tema de los cuidados, la vivienda o el sector primario, como ejes estratégicos en los que trabajar diferentes proyectos, desde una visión local y en colaboración con diferentes agentes. Al igual que otras ocasiones, se ha solicitado financiación para los proyectos que la mesa considera fundamentales para el desarrollo del territorio.

NOTA DE PRENSA/PRENTSA OHARRA



En líneas generales la Mesa del Pirineo muestra su satisfacción por la celebración de esta asamblea en la que una vez más, todas las partes implicadas (Mesa, Gobierno y Parlamento) participan en la revisión del propio plan, en la reflexión sobre su proceso, identificando en cada momento sus fortalezas y sus debilidades; y miran conjuntamente hacia el futuro, corroborando una vez más el compromiso de todas las instituciones con el territorio.